

Hitzaurrea

## METAFISIKATIK HISTORIARA

Joxe Azurmendi

Leibniz-ek Descartes-en aurka<sup>1</sup> erreakzionatu du —hala ere XVII. mendeko paradigma kartesianoa deituko genukeenaren barru-barruan, «mathesis universalis» ereduarena: hori erradikalago eta zabalagotuz hain zuzen— eta berriro Bacon-ekin zuzenki lotu da, honi literalki hartzen diola ematen baitu historiaren estudioari buruzko zenbait proposamen, horrela historiaren eta arrazoimenaren artean Descartes-ek eragindako etena (Italian Vico-k saminki nigarreztatzen duen hori) gaindituz edo gainditzeko bidean ipiniz gutxienez.

Kontu ezaguntzat eman genezake Leibniz-en interes eta zaletasun pertsonala historiagatik: *Leibniz-en bizitza berak labur-labur marraztua*-n berak gogoratzen duenez, bere aita, Leipzig-en profesorea, «nire baitan bi amodio bateratzen, historia sakratuarena eta profanoarena» ahalegin-du bide zen<sup>2</sup>. Eta *Hizkuntzaren gorazarrea edo Karakteristika unibertsala* baitan, «haurtxoa nintzenez geroztik zoragarri laket nituen historiak» aitortzen du berak<sup>3</sup>. Gabriel Wagner-i gutunean berriro errepikatzen du, jakintzaren beste alor batzuetaz interesatu baino lehen, logikaz eta matematikaz bereziki, «historilarien eta poeten liburuetan osoki

murgildua nenbilen ni, ja irakurri ahal izan nuen une beretik hasi bainintzen historia frekuentatzen»<sup>4</sup>.

Historiaren zaletasun hau bere bizitza eta obra osoan zehar mantenduko da, eta bere denboran aritu izan dituen aktibitate entziklopedikoen artean, Hannover-ko Etxearen historigilearena dago<sup>5</sup>. Kideko beste aktibitate batzuk gehitu ahal izango genituzke, halanola obra zahar edo ahaztuen birrargitaratzailearena, etab. Historiako sail guztiekiko interes honek, *Polyhistor* soil ezezik, bera zinez —Diels-ek zerizkionez— *Panhistor* delako titulua merezi izan dio<sup>6</sup>. Haren pentsamendu konplexu eta aberats guztia, interpreteren batzuek funtsean historiaren filosofian nukleatua (K. Fischer, F. Olgiati) eta haren inguruan ardatzua ulertu nahi izan dizute, logikan edo zientziaren teorian baino hobeto (B. Russell, E. Cassirer). Edonola dela ere hori, eztabaidaezina da, Jakob Thomasius-ekin batera<sup>7</sup>, jurista, Leibniz-en irakaslea, Christian Thomasius-ekin (semea) eta beste garaikide batzuekin, Leibniz-ek influentzia erabakiorra ukan duela gero Alemanian jarraitu diren historiaren burutaeretan.

Christian Thomasius-entzat (semea), «Aufklärung-aren aita» G. Tonelli-ren arabera, petismoaren hurbil dagoen haren filosofia XVII. mendearen azken eta XVIII.aren hasiera aldera Alemaniako Unibertsitateetan arrunt nagusitu baitzen, filosofia edo «munduko jakinduriaren» ikasketa onura moralaren zerbitzuan dago (ikusiko dugunez, horretan Leibniz-ekin bat dator)<sup>8</sup>. Erudizioa («Gehlehrheit»), beti zuhurtziaren mirabe suposatuta behar dena eta zuhurtzia («Klugheit») erlijiosoarena guztiz gain, sakro eta profanotan bereizten da. Batak zein bestek dute bai arrazoimenaren eta bai —uztezinki halaber— historiaren baliapen arteza galdatzen, nahiz ez izan biak modu berdinean eta neurri berean<sup>9</sup>. Erudizio profano edo «munduko jakinduriak» ezin preteni lezake, hortaz, arrazoimen propioaren baliabideetara soil mugatzea, zeren eta hori arrazoimena, bakoitzarena, Thomasius-ek behin eta berriro errepikatzen duenez, ahula da eta alkantzu

mugatukoa. Urruti gaude Descartes-en usteon osotik norbere arrazoimenean. Ez dago arrazoimen soilaren guztia-haltasun konturik ere: historiaren laguntza behar du gizakiak, egia guztiak ezagutu ahal izateko nahiz ezagutzen dituen egiez ziurtasun osoa edukitzeko<sup>10</sup>. Giro honetan eta izpiritu honekin sortua da, beraz, Aufklärung alemana, sortzetik beretik.

Era beretsuan Leibniz-ek, arrazoimen soil bidez filosofatzeko pretensio kartesiarraren aurka, eskola horrek ernarazi duen «barbaria molde berria» deitoratzen du<sup>11</sup>, erudizio orori muzin egin dionean: antzinako barbariatik Ernazimentuak erreskatatu duen hainbat eta hainbat testu, berriro ahazpenaren zulora doa barbaria berri baten kausaz. Leibniz-en idazkietan maiz topo egiten dugu hola moduzko lantuekin, edo aurreko autore antzinako nahiz modernoek gorazarre eta onespeneekin. Hala idazten du G. Wagner-i aipatu gutunean: «(...) Urteen igaroak eta azterketa astitsuago batek, lehen gutxi estimatzen nituen gauzen batzuen baliagarritasuna erakutsi didate: beraz, oso arinki ezer ez mesprezatzen ikasi dut (...). Frantzian kartesiano deituei nik hau adierazten nienean eta abertitzen nienean, ez zutela inolako abantailarik aterako eskolak mesprezatuz, eta era horretan estudioei ez zietela onik egiten, eta pentsaera berriaren aurrean doktoen haserrea piztu bakarrik egingo zutela (...), neurri batean horixe gertatu baita azkenean, Huet Avranches-ko Gotzain<sup>12</sup> txit eruditoaren zentsura ez guztiz bidegabekoak demostratzen duen moduan. Eta ezin diot oniritzi Aita Malebranche-ri, nire adiskide ona bestela, hala antzinate erromatar eta grekoaren kritika eta ikerketa, nola liburu rabiniko eta arabiarren irakurketa zentsuratzea preteni dezala (...). Izan ere, horrek denak bere baliagarritasuna dauka eta ona da horretaz enplegatzen den jendea egon dadila, eta beharrezkoa da bere lanak jaso dezala merezi duen txalo pizgarria, eta ez, enparaduen aurrean diharduten haien lan itzelarentzat, inolako sari gabekoa jeneralean, mesprezua erakutsi eta desanimatua izan»<sup>13</sup>.

Esklusibismo alderdikoia da, zeri kontraratzten zaion Leibniz hemen ere: «Jende filosofiara eta arrazoiketara emanak —idazten dio Burnet-i— gutxietsi egin ohi ditu antzinateari buruzko ikerketak, eta antzinazaleak, beren aldetik, filosofoen eldarnioak deitzen dituztenez burlatzen dira. Tentuzago jokatu litzateke, batzuen zein besteen zerbitzuei justizia egingo balitzaie»<sup>14</sup>.

Paraleloki, ugariak dira Leibniz-en obran «antzina-koen pentsamendu kementsu, zabal eta jasoen»<sup>15</sup> defentsak. Haien substantziaren kontzeptu zoli eta sakona defendatzen da *Metafisikako diskurtsoa*-n<sup>16</sup>, *Descartes-en fisika-ren azterketa*-n<sup>17</sup> eta hamaika beste lekutan espreski berretsi duen defentsa. *Naturaren sistema berria*-n kartesiarren jauzikako aldakuntzak kritikatzten ditu<sup>18</sup>, berriz ere antzinatarak defendatuz, «antzinatar horiek uste den baino tinkoagoak baitziren»<sup>19</sup>, etab. Ez du kemen gutxiagorekin defendatuko, mila abagunetan, logika aristoteliko erdeinatua (eta Ramon Llull bera, *Diskurtsoa*-n eta, Descartes-ek ridikulizatua), gehiago garatu badaiteke ere, funtsean aski dela iritziz, bilatzeko ez bada, bai arrazoitzeko eta argumentatzeko<sup>20</sup>. Aipa dezagun, azkenik, *Descartes-en printzipioei buruzko parte orokorrari abertimenduak*-en argitzen duenez, Cogito-aren ziurtasunaren gainean, lehen egia bezala, oinarrituriko ezagutzen edo egien sistema baten eraikuntza baino nahiago duela berak jokamolde aristotelikoa, hau, Leibniz-ek kontrajartzen duenez, filosofia eraikitzeko zerean oinarritzen baita, «arrazoimeneko egien artean lehen kontraesanaren printzipioa [izatean] edo, Aristotele-k zuzen ohartu zuen gisan, gauza bera dena, identikoena»<sup>21</sup>. Leibniz-i (gero Kant-i bezala) argitasun kartesiarra franko iluna iruditzen zaio. Kuriosoki metodo kartesiarra oro har, zer eta, gutxiago matematikoa (geometrikoa) juzgatzen du aristotelikoa baino: «(...) Gauza argiak eta berezituak soil baiesteko arau hain aldarrikatu hori ez da oso probetxuzkoa, argiaren eta berezituaren ezaugarri hoberik ematen ez bada, Descartes-ek eman dituenak baino. Hobesgarriak dira Aristotele-ren eta geometren arauak, hots, printzipioak

salbu (lehen egiak edo hipotesiak alegia) ez dugula deus baiesten baliozko argumentu batek frogatua ez badago: baliozkoa diot, hau da, formako edo materiako biziok ez kutsatua. Materiako bizioa da printzipioetatik landa zerbait asumitzea, edo printzipioetatik partiturik baliozko argumentuz frogaturikotik landako zerbait»<sup>22</sup>.

Antzinakoen defentsa leibniztarrak ez ditu Erdi Aroko eskolastikoak bazterrean uzten, C. Stegmann sozianianoaren Metafisikaren erreseina kritikoa ikus dezakegunez: «(...) Eskolastikoren batzuek zinez halakoxe moldetan idatzi dute, hark [Stegmann-ek] haien obrei Augiasen ikuiluak iritzi diezaiela merezi baitute. Baina ez dira izkribu horiek denak zapuztu egin behar, gure autoreak egiten duen moduan (...), baizik eta narraskeria haren guztiaren azpian urrea dago ezkutuan»<sup>23</sup>. Hitzotan jada filosofia perennearen gai famatua iragartzen da, Remond-i gutunean honela azalduko duena: «Hartarako betarik banu, nire printzipioak antzinakoenekin eta beste gizaki trebe batzuenekin erkatuko nituzke. Egia uste den baino zabalduagoa dago, baina maiz ezkutuan dago eta, oso maiz halaber, perbertitzen duten edo balio gutxiagokoa bihurtzen duten eraskiz nahaspildua, are ahuldua, murriztua, korrupitua. Antzinakoengan edo (orokortasun handiagoz mintzatzeko) aurrekoengan egiaren aztarna horiek ohartaraziz, urrea simaurretatik atera egingo genuke, diamantea bere mehazulotik eta argia ilunpetik, eta *filosofia perenne gisako bat* izango litzateke hori benetan [latinez jatorrizko testu frantsesean: *perennis quaedam philosophia*]. Are ere horretan progreso bat sumatuko litzatekeela ezagupenetan, esan genezake. Ekialdeetarako jainkotasunaren ideia handiak eta ederrak ukan dituzte; grekoek arrazoiketa eta zientzia forma bat gehitu diete. Elizako gurasoek grekoen filosofian zegoen okerra hastandu dute. Baina eskolastikoak jentilen filosofian onargarria zena kristautasunerako probetxuz erabiltzen saiatu dira. Maiz esan dut: «urrea dago ezkutuan barbaria eskolastikoaren simaurretan» [latinez jatorrizko testuan: «J'ay dit sou-

vent: aurum latere in stercore illo scholastico barbariei»]. Eta aurki ledila nahi nuke gizonen bat trebea, filosofia irlandar edo espainol horretan aditua, zaletasuna eta gaitasuna lukeena handik ongia ateratzeko»<sup>24</sup>.

Pasarte harrigarri honetan filosofiaren —funtsean, zientziaren— historia garapide progresibo baten antzera bururaten da jada garbi asko. Era honetan filosofia bakoitza —edo aro bakoitzeko filosofia— bere aurrekoen gain oinarrituz oinarritzen da —ez aurrekoekin etenez— arrazoimenean. Tradizioa, historia, razionalitatearen parte dira. Filosofia aurreko filosofietatik elikatzen da.

J. G. Buhle-k, aurrenekoetako filosofiaren historilari alemanak, eklektizismoa aurpegiratzen dio Leibniz-i, gero Hegel-ek konpartitu egiten duela ematen duen kritika batean: «Haren filosofia ez da hainbeste espekulazio original, libre eta menpegabe baten ekoizpena, eklektizismo bat baizik, sistema zahar eta berrien azterketaren emaitza, zeintzuen akatsak nahi zituen autore honek modu berezi batean konpondu. Filosofiaren elaborazio inkoherente bat da gutunketa moduan»<sup>25</sup>. Bistan da, ordea, eklektizismoaren «akats» hori Leibniz-ek oso kontziente eta deliberatuki, eta trebetasun handiarekin ere, bilatua duela. *Entseiu berrietan* honela dio espreski Teofilok, solasean gure autorearen pentsamendua ordezkatzan duenak: «Sistema honek Platon Demokritorekin lotzen du, Aristoteles Descartesekin, eskolastikoak modernoekin, teologia eta moralak arrazoimenarekin», etab.<sup>26</sup>.

Hain zuzen ere, irakurleak laster aurkitzen duen bezala komentaristek behin eta berriz destakatua, Leibniz-en «eklektizismo» honek (beste komentarista batzuek ukatu egiten dizutenak, E. Cassirer-ek adibidez, berbaren konotazio negatiboengatik usadio arruntean) armonia unibertsalaren doktrina monadologikoaren parte egiten du, horren partaidea eta menpekua baita azken finean historiaren ikusmolde leibniztarra bera. Pentsamolde monadologikoan dena denari lotua dago nolabait, edozeren zer izatea inguru osoaren islada eta fruitua da, aldi berean gutziz

bakana, indibiduala izaki. Eklektikoa, bada, unibertsoa bera dela, esan genezake, eta unibertsoaren altzoan giza historia bera: eklektikoa substantzia bakoitza da unibertsoan eta une bakoitza historian<sup>27</sup>. Doktrina funtsezko hori piska bat gogoratzea komeniko zaigu, hortaz, orain lau puntu nagusitara bakarrik mugatuz.

## 1. Armonia eta betegintzarre progresiboa

Unibertso grekoa armonia eta kosmos da. Aristotele-k, kausa eragilearen, formalaren eta finalaren behaketaz, hirurok azken finean Mugiarazle Mugigabearen puntu gorenean elkartzen direla, unibertso horren guztizko teoria nahiko unitario bat formulatu du, funtsean ikuskizun orokor bateratuan fisika eta teologia, kosmologia eta etika, politika eta metafisika elkarrekin adosten dituen.

Baina aristotelismo arkitektoniko hori, eskolastikak aspaldi transformatua dago, eta berrikiago modernoek hankapean triskatua. Leibniz-ek bizi duen mundua mila kontraesan moduk inundatu eta nahastua dago: bere jardun diplomatikoan, katoliko eta protestanteen artean, edo Printze alemanen artean eta hegemoniagatik norgehiagokatzeko hasiak diren Gorte europarretan, bakea eta armonia lortzearren behin eta berriro ahalegindu behar du hark. Intelektualki, orobat, heresiek eta sektek, Mundu Berriaren aurkikuntzak bezala astronomia kopernikanoak eta fisika matematikoak, filosofia berriak eta «Autoreen» uko errabiatuak, etab., urratua dizute armonia oro<sup>28</sup>. Hain zuzen, batasun eta armonia oinarrizko berrri baten eraiketa, tenore honetako filosofia —batez ere metafisika— handi guztien jomuga izango da.

Estoizismoaren eta Ernazimentuaren bitartekaritzaz Aristotele-ri atxekirik, Leibniz-ek berea egiten dizu armonia unibertsoal betearen tesia, finalitate bat eta probidentzia bat —ordenu bat, ahalgarrietarik hoberena— suposatzen duena, unibertsoan den eta gertatzen den guz-

tian<sup>29</sup>. Ordenu horretan denak ahal den betegintasun maximorantz jotzen du (guztien eta bakoitzaren joera hori gabe mundu hau ez bailitzateke ahalik hoberena izango), «substantziaren naturak —izan ere— progreso bat edo aldakuntza bat ezinbestean galdatzen du eta esentzialki inplikatzeko du, hura gabe aktuatu ahal izateko indarririk ez luke izango eta»<sup>30</sup>. *Lehen filosofiaren erreforma eta substantziaren nozioa*-ko azken paragrafoak esplizito askoak dira horretan: «Jainkozko obren eder eta betegintzarre unibertsalek beren goena erdiets dezaten, ontzat eman beharra dago unibertso osoaren progreso etengaberen bat eta txit librea, horrela beti kultura goitarrago baterantz aurreratuz doala. Era berean gure lurraren zati handi bat gaur egun laborantza baten, geroz eta gehiagotzen joango denaren, objektua da. Eta noizean behinka zati batzuk atzera egoera basatira itzultzen direla, edo birrinduak eta hondatuak izaten direla, egia bada ere, zerau, hala ere, oraintxe mina interpretatu dugun eran hartu behar da, alegia, birrinketa eta hondamendi horrek ongi handiago baten erdiesteko balio duela, halako moldez non kalteak berak on egiten baitigu neurri batean. —Eta, hori horrela balitz, derrigorrezkoa litzatekeela mundua aspaldi paradisu bat bihurturik egotea, objekzio posibleari, erantzuna berehalakoxea da: substantzia askok betetasun handi bat jadagoneko lortua duten arren, gauzen abismoan, kontinuoaren zatikor-tasun infinitoaren kariatz, beti geratzen dira zatiak lozorroan, iratzarri eta bultzatu beharra dagoenak gradu handiago eta hobe batera eta, nolabait esateko, kulturaren maila altuago batera. Horrela, bada, progressoa inoiz ezin-go da bere azkeneraino heldu»<sup>31</sup>.

## 2. Indibiduo eta monadaren kontzeptuak

Indibiduo edo banakoa bere naturaren osotasunaren bidez egiten da edo definitzen da (*individuum sua tota entitate individuatur*), h. d., hari espazioan eta denboran



egotzi ahal izango litzaizkioken predikatu guzti-guztien bidez. «A» zer da (edozein subjektu)? Izan, «a» hari buruz baiets litekeen guzti-guztia da. Haren predikatu positibo guztien suma. Subjektu logikoaren kontzeptu honi errealtatean indibiduo edo banakoaren kontzeptua, Metafisikan monadarena dagokio. Errealitatea osatzen duten elementu guztien azken subjektuak eta sostenguak monadak dira.

Substantzia indibidual edo monadak denak ezberdinak eta autonomoak dira (Charlottenburg-eko parke osoan bi osto berdin ez dago), ez jaio eta ez hil egiten dira (kreatuak eta ezabatuak bakarrik izan litezke), ez dira kanpoko influentzien menpeko (ez dute leihorik), beren baitatik eta espontaneoki aktuatzen dute, beren lege propio eta eskusiboaren arabera, eta hala ere ez dute besterik egiten lege unibertsal bat bete baino. Indibiduo bat osotasun bere baitan itxi eta biribila da, bere betegintzarreantz bere natura propioaren kausaz jotzen duena.

F. Meinecke-k indibiduotasunaren ideia basiko honen eragin kalkulazina azpimarratzen du, bai idealismo eta, are gehiago, bai historizismo alemanetan<sup>32</sup>. «Pertsonaia» bakoitza, pentsamendu, eskola —nazio, aro, kultura— bakoitza, batasun oso eta autonomo gisa (izan ere, Erroma zerk egiten du *bat*, eta beraz subjektu edo identitate bat, hari buruz historia guztiz konplexu bat predikatu ahal izateko? Errepublika, Inperioa, zuzenbidea, ekonomia, bostehun urte lehenagoko eta geroagoko jendea, esklabuak, militarrek, poetak...), bere baitatik eta bere printzipio eta dinamika inmanenteetatik, bere errotik bezala, ordenu eta sistema baten antzera, aboratu eta esplikatzen ahal izango da.

### 3. Osotasun organikoa

Monadak leihorik ez badu ere, lege unibertsal baten gauzatzaile legez, unibertsoaren osotasunaren ispilu bizia gertatzen da. *Metafisikako Diskurtsoa*-ren 9. zenba-

kian hala irakurtzen dugu: «Edozein substantzia mundu oso bat bezala da, eta ispilu bat bezala Jainkoarena edo unibertso osoarena, hori bakoitzak bere modura adierazten baitu; gutxi gora-behera hiri bat ere ikuspuntu ezberdinetatik modu ezberdinetan irudikatua egoten den bezala, ikusleak nondik begiratu»<sup>33</sup>. Era honetan, edozertaz edozer eta dena denaz predikatu ahal daiteke, hots, monadarik infimoena unibertsoan den edo agitzen den guzti-guztiak afektatzen du, eta hein honetan «berea» du nahitaezean hura guztia («egiazko predikazio orok gauzen naturan oinarriren bat baitu»<sup>34</sup>; «predikatu oro subjektuaren naturan zinez jaso baitago»<sup>35</sup>), adimen goitarago batentzat horrela ahagarria izaki, edozein monadaren noziotik hasita unibertso osoa a priori deduzitzea<sup>36</sup>.

Arrazoiaren printzipioagatik «mundu zabal guztian dena matematikoki agitzen da, hots, hutsezinki»<sup>37</sup>; eta, edozein ikuspuntutatik begiratu, denak dena barnebiltzen du («landarez beteriko jardin batek legez, edo urmael arrainez beteriko baten eran»<sup>38</sup>), monada bakoitzetik menpean eta hari afektatzen ageri da dena («ez da inor Indian alarguntzen, haren emaztea European hiltzen denean, aldakuntza bat zin-zinezkoa berari gaineratu gabe»<sup>39</sup>), hartaraino ere, ezen «nahiko zaila baita Jainkoaren ekintzak sorkarien ekintzetatik bereiztea»<sup>40</sup>. Honela, bada, izpiritu kartesiar bakartiaren alderantziz, izpiritu leibniztarrak, beren indibiduotasunaren mendrarik gabe, elkarren artean harremanduak, armonizatuak, aberastuak eta elkar osatuak, batak bestea barnebilduak, bizi dira denak, «errepublikarik beteginengan, izpiritu guztiak osaturikoan»<sup>41</sup>.

Ahalbidetua dugu honela pentsamenduak historia izatea: «oraina etorkizunez ernari dago, etorkizuna iraganen irakurri ahal izango litzateke»<sup>42</sup>. Errealitatea soziala eta historikoa bilakatu da. Y. Belaval-ek honela konkluditzen du: «La succession des hommes n'est plus la succession incohérente d'individus indépendants; celle de leurs pensées n'est plus la simple juxtaposition de réflexions libres l'une de l'autre»<sup>43</sup>.

## 4. Ezagutzaren gradualtasuna

«Unibertsoaren ederra arima bakoitzean ezagutu ahal izango genuke, zabaldu ahal izango balira haren tolestura guztiak, denboran bakarrik zabaltzen direnak sentigarriro (...). Arima bakoitzak [irakur genezake: filosofo bakoitzak, eskola edo korronte bakoitzak] infinitoa ezagutzen du, dena ezagutzen du, baina nahaski: hala itsaso bazterrean pasiatzen naizenean eta hark egiten duen hotsa entzuten dudanean, hots osoa konposatzen duten uhin bakoitzaren hots partikularrak entzuten ditut entzun, baina berezitu gabe»<sup>44</sup>. Era honetan filosofoen eta eskolen konfusioak, ezaskitasunak, errakuntzak (pribazioak baizik ez direnak)<sup>45</sup> esplikagarriak dira arretaren edo memoriaren falta bezala, edo argitasun eta egokitasunarenak ideietan<sup>46</sup>. Eplikagarria gertatzen da baita ere —Aristotele-ren arazoa<sup>47</sup> bere aitzindarietako— filosofo batek bere aitzindari edo aurreko beste bat hobeto ulertzea, honek bere burua baino, errakuntzak sortzen baitira sortu mugatasunetatik, pribazioetatik, jasaten dituenak halakotzat ezagutzen ez dituenetatik, baina bai ikusgune gorago batera igoa denak eta handik orokortasun zabalagoa dominatzen duenak. Bestalde, ezein pentsamendu eta ezein eskola izan daiteke egia osoaren jabe; eta ezein eskola eta pentsamendu ezin daiteke izan deusik ere ez egiaren jabe. «C'est par la convergence de nos vérités partielles que nous tendrons indéfiniment vers la vérité»<sup>48</sup>.

Ezagutza historiko-sozial hauen izaera edo naturaren arazoa geratzen da. Ernazimentuan historia —eredu politiko eta moralen ispilua, antigualeko pertsonaia miresgarrien historia— biziki dastatu eta maitatu da, baina arte liberal gisa ikusita, hots, ez da, salbuespenen batzuk salbu behintzat, zientzia kontsideratu («essa si riduce a mera narrazione di fatti positivi»)<sup>49</sup>. Descartes, kapitulu honetan, Ernazimentukotzat jo genezake. Leibniz-entzat historia zientzia bada, zein zentzutan den, itaundu beharko dugu.

«Jakintzaren eta ikerketaren parte handiena —idazten du Leibniz-ek mintzaira platoniko batean— itzalaren ildoari dagokio: historiak, hizkuntzak, giza ohiturak, naturaren usadioak»<sup>50</sup>. Demagun historia zientzia dela, zein zentzutan izan daitekeen ikustera pasatzeko: [a] «gizon-emakumeak enpirikoak diren neurrian, h. d., beren ekin-tzetako lautik hirutan, abereek bezala bakarrik dihardute»<sup>51</sup>; oroimenak eta ohiturak gidaturik soil dihardutela esan nahi baita, Hume-k baino askoz lehenago Leibniz-ek ohartzen duenez. Abereak ez bezala, ordea, [b] gizon-emakumeok arrazoimenaz balia daitezke eta kausak deskubritu, eta efektuen arrazoi «halabeharrezkoak» horrela (astronomo batek ez bakarrik itxaron egiten du bihar eguzkia ateratzea, ezpada jakin daki zergatik hura «halabeharrean» aterako den); baina kausa hauek berek halabehartasun hertsia-hertsia izan ez dutenez, beharrezkotasun induzitu hau sekula ez da absolutua izango; hots, hura oinarritzen duen arrazoiketa ez da [c] «egiazko arrazoiketa» garbia (egia halabeharrezko eternelatik bakarrik menpe dagoena). Leibniz-en armonia aurrezarrian, ezagutzaren hiru maila hauek [a, b, c] ez dira diskontinuoak eta harreman gabekoak beren artean, bata besteari ordenatuak baizik, elkarren osagarri<sup>52</sup>.

Historia metodoz arakaturik, inoiz ez gara arrazoi beteginen edo azkenekoen ezagutzaraino iritsi ahal izango<sup>53</sup>, baina bai lege historiko guztiz orokorrenak atzematera. Nolakoxe metodoz?, jakin nahiko genuke hemen. Leibniz-ek, alabaina, metodologia historiko bat esplizitoki ez du inon garatu. Bacon-en antzera bai, arauak han-hemen makina bat eman ditu materialak nola bildu eta sailkatu, irizpideak testuen baliagarritasun frogak egiteko eta kritikarako, interpretazio maila ezberdinen erkapan eta kontrasterakoak, hipotesien eraiketakoak, etab., auzitegietatik harturiko kriterio eta metodoak aplikaturik<sup>54</sup>. Ikerketa historiko alemanetan zehaztasunaren abiatzailea bera izan dela, harrotuko da Leibniz noizpait, eskubide osoarekin. Baina haren «hermeneutika orobiltzailea» deitu litekeena

da hemen gehiena interesa dakigukeena, bere filosofia monadologikoaz lotua hori ere: gertakari historikoak bere testuinguru osoaren barruan hartu behar direla alegia; gertakari filosofikoak, adibidez, inguruko gertakari literario, erlijioso, politiko, zientifikoekin harremanean, etab., are zirkunstantzia klimatologiko eta geologikoekin ere duten zerikusia aintzat hartuz, behar direla ikertu<sup>55</sup>.

Horrek denak ez du ikerketaren lehen partea besterik osatzen, ordea. Honek, izan ere, bere azken arrazoen ordenua deskubrituz behar luke amaitu, horietatik bera menpe dagoen, eta zeintzuek azken finean munduaren eta historiaren azalpena beraiek bideratzen duten. «Klisk batean begiesten den egien armonia ederra, sistema arautua», da Leibniz-ek gogoia duena. Printzipio esplikatzaileen artean hierarkia bat eta armonizazio bat ematen da, hortaz, zenbat eta gorago igo orokortasunean hainbat eta gutxiago baitira haiek kopuruan, gertakariazko egien eta arrazoizko egien hurbilketa progresibo bati segituz, printzipio bakar batera edo gutxi batzuetarantz joz, handik errealitatearen ordenua deduzitu ahal izateko moldean: «ordenu zientifiko betegina proposizioak elkarrekin beren demostrazio bakunenak jarraituz korapilatzen direnekoa da, haiek bata bestegandik ernetzen direla...». Horrela zientziak, zenbat handiagoak egin, txikiagoak bihurtzen direla («les sciences s'abregent en s'augmentant»), paradoxa daukagu zientzien aurrerabidearen historian: «car plus on decouvre des vérités et plus on est en estat d'y remarquer une suite réglée et de se faire des propositions tousjours plus universelles dont les autres ne sont que des exemples ou corollaires, de sorte qu'il se pourra faire qu'un grand volume de ceux qui nous ont precedé se reduira avec le temps à deux ou trois theses generales»<sup>56</sup>.

Azkenik, armonia unibertsalaren printzipioa, Leibniz-ek historiaren estudioari esleitzen dizkion helburuetan ere garbi nabaritzen da. «Jatorriak ezagutu nahiaren plazerrean datza nagusiki historiaren erabilpena —idatzi du behin ernazentistak irudi lezaketen berbetan—, gai-

lendu diren gizakiei egiten zaien justizian, kritika historiokoaren ezarpenean eta, batez ere, historia sakratuarenean, beronek eusten baitie errebelazioaren oinarriari, eta (genealogiak eta printzeen eta ahaltsuen eskubideak alde batera utzita) ereduek eskaintzen dizkiguten irakasbide egokietan»<sup>57</sup>. Anitz beste pasarte aipatu ahal izango genuke, non pedagogikoa ez den historiaren helburu bakarra, edo bali pedagogikoa bera ez etikoa bakarrik (eredugarria), ez plazertsua, baino intelektuala eta hezitzailea ere bai; ez probetxugarria soil, ordea, noraezeko eta uztezina baizik taxuz arrazoitzeko (antzinakoen apologiaren parte osatzen du horrek). Historiak helburu ezberdinei zerbitzatzeko die; ez helburu kontrarioak, elkarrengandik banatuak ere ez, armonizatuak baizik beren artean. Baina, gainera, zurubi leibniztar armonikoan, natura eta grazia ahokatzen dituen eran jakitateak eta helburuak ere kateatzen dituenean, erlijioari zerbitzatzeko da historiaren xede behinenetako bat<sup>58</sup>. Leibniz-engan ez da etenik eta jauzurik topatzen. Jarraitasuna eta kontinuitatea beti: armonia, beraz, arrazoimenaren eta fedearen artean ere, filosofia eta teologiaren artean (*Entseiu berrietan* ik. «Fedea eta arrazoa eta berauen muga zehatzak» kapitulua). Dena Jainkoak gobernatua dago, izpirituen onerako gobernatua. Jainkoa izadian eta geure barnean mintzo zaigu, historia sakratuan eta historia profanoan orobat<sup>59</sup>. Eta Belaval, kontinuitatearen printzipioa historiaren filosofia leibniztarreko printzipio metafisikoetan aurrenekoa juzgatzen duena, filosofiak hemen ere Erdi Aroan eta gero Ernazimentuan izandako *ancilla theologiae* hura izaten jarraitzen duela, epaitzeraino iristen da<sup>60</sup>.

Kontinuitate edo jarraitasun filosofiko-teologikoaren printzipioak zeharo dominatzen ditu noski *Teodizea*, *Filosofoaren fede aitortza*, *Naturaren eta graziaren printzipioak arrazoimenean oinarrituak* eta orain tituluak aipatu baino ezin dugun hainbat izkribu. Esan daiteke, ordea, bere idazki garrantzitsuenetako ia batean ere ez duela utzi esplizitoki aitortu gabe printzipio sakratu hori. «Esta ciudad

de Dios —irakur dezakegu *Monadologían*—, esta monarquía verdaderamente universal es un mundo moral en el mundo natural, y lo más elevado y divino que hay en las obras de Dios (...) § 87. Así como antes establecimos una armonía perfecta entre dos reinos naturales, uno de las causas eficientes, el otro de las finales, también debemos destacar aquí otra armonía entre el reino físico de la naturaleza y el reino moral de la gracia (...) § 88. Esta armonía hace que las cosas conduzcan a la gracia por las mismas vías de la naturaleza...»<sup>61</sup>, eta filosofiak ere teologiara eramatea, arrazoimenak federa. Unibertsoan bezala, espazio guztien armoniak agintzen du pentsamenduan ere.

Ordua izango da azalpen bat emateko, metafisikako testu batzuek zergatik duten hitzaurre bat ezagutza historiko-sozialaz gehiago arduratzen dena metafiskaz baino. Arrazoia da, jarraiko filosofia aleman guztian gero arruntak eta oinarritzkoak izango diren alde fundamental batzuk, beharbada fundazionalak, Leibniz-engan nabariak direla ja.

Modernitatea —lehenagoko Erdi Aro fededunarekin kontrastatzearen esaterako— kulturen eta gizartean, h. d., zientzian, politikan, artean, etab., arrazoimenaren paradigma ezartzeko proiektua bezala ulertzen badugu, erraz bereiz genezake bi aro edo bi modernitate, Kant-en *Arrazoimen hutsaren kritika* (Frantziako Iraultzarekin batera, nahi bada) mugarri eta biragune bezala hartuta, hots, haren aurreko razionalismoa, ezagutza ororen eredutzat matematika duela (lehenengo Modernitatea edo saio kartesianoa) eta arrazoimena bera historizatu egingo duen haren osteko idealismo eta antiidealismoak, Kant eta Hegel bezala Feuerbach eta Marx (arrazoimenaren paradigmen bigarren saioaldia, Nietzsche-rekin porrota deklaratu arte). Lehenengo ziklo horretan apenas egon da autore alemanik, eta dagoenak —Leibniz— frantsesez edo latinez idazten du ia beti: alemana oraindik ez da «kultur hizkuntza» Europan. Bigarren zikloan, oster, zeharo nagusi dira pentsalari alemanak (apenas dago autore ez alemanik aro honetan), filosofiaren historietan bata besteari

bultzaka iladan etorri ohi baitira haien izen erraldoiak: Kant, Fichte, Schelling, Hegel, Schopenhauer, Feuerbach, Marx... Arrazoimenaren paradigma askoz ere anbiziotsua goa entseiatzen dute hauek, estetikatik ekonomia eta politikaraino —eremu «irrazionalak» ere besarkatuz hortaz—, historia, gizarte mugimenduak, gerra (ez mugimendu mekanikoak edo fisika matematikoa bakarrik) dena rasionalki atzeman gura baita, gizakia bera printzipalki bere joan-etorri eta jardun sozial eta historiko guztietan. Bera lehenengo saioaldikoa eta paradigma kartesianokoa izan arren, Leibniz-en influentzia erabakiorra izan da bigarren arrazoimenaren paradigma eraikitzeke ahalegin molde berrietan (Leibniz-ek, esplikatzeko Cassirer-ek influentzia hau, «errealitate animiko-izpiritualaren kategoriak» naturaren ezagutza matematikoaren kategorietatik bestelakoak eta apartekoak bezala deskubritu ditu)<sup>62</sup>. Mendelssohn, Lessing, Herder, Humboldt, etc., edo Hegel eta gainerakoak, ez dago ulertzerik Leibniz-en argitan ez bada. F. Meinecke-rekin esateko: «Leibniz-en handitasuna bai [1] Ilustrazio alemanaren, eta handik erneak diren [2] idealismo eta bai [3] historizismo alemanen aitzindaria izatean datza»<sup>63</sup>. Pentsamendu aleman moderno guztiaren iturburua duzu, beraz, nolabait.

Beti dira arriskutsuak (eta inesaktoak ezinbestean) periodo oso bati buruz egiten diren baieken orokorrak. Baina ondoko hauek bezalako baieken batzuk seguruenik zilegi da egitea, arrunt zabalduak baitirudite historilarien artean ere: «Filosofia alemana» deritzon horrek, Ilustrazio ingeles eta frantsesaren aldean batik bat, inoiz ez du haien agresibitatea eduki zeharo eteteko tradizioarekin (metafisika eskolastikoa deritzola horri, ala Ernazimentua, ala erlijio kristaua). Gustuen arabera, erradikaltasun falta legez planteamenduetan, eklektizismo anbiguo eta eroso, edo teologia mozorrotua bezala interpretatu ahal izango da hori; edo begikera zabaltasun bikain bezala. Dena den, Ilustrazio alemana bere jatorrian pietismoaren hurbil-hurbil egon da (Ch. Thomasius), ezagutza erli-



jioso, historiko eta razionalen armonizazioan oso interesatua jarraituko du Leibniz, Wolff eta «filosofia popularrarekin»<sup>64</sup>. Filosofia kritikoak berak, barrutiak ongi mugatzen saiatuz, haien armonizazioa bilatu du barnean. Armonizazioari handienetan gailurtzen da idealismoa (bereziki Fichte eta Schelling berantak eta Hegel), eta Herder, Humboldt eta historizismoaz ez dago zer esanik. Diferentziak ebidenteegiak dira —Kant eta Hegel, edo Hegel eta Leibniz artean—, aipatu beharrik egoteko. Baina Leibniz-engandik Hegel eta Marx-engana, edo Kant-en Arkitektonikan, guztiaren bilakaera eta osotasun armonikoaren ideia dabil nagusi; filosofiari esentzialki atxikitzen zaio bere historia (Kant-entzat baino sakonkiago Hegel-entzat; baina Kant-ek berak ere filosofiaren historia, eta filosofia bakoitza historian, haiek osotasun artikulatu bat bezala sortzea eragiten duen helburuaren ideiatik ulertzea eskatzen du)<sup>65</sup>, h. d., zer izatean nola bilakatua izatea sartzen da, etab. Kreazioaren, eraiketaren eredu dinamikoa da orain izatearen kontzeptuan dominatzen duena.

Leibniz-engandik Ranke eta Droysen-en historizismo zorira, korrante honen barne eskuarra osatzen duten elementuak, bere «munduaren sentiera» (Spinoza-ren deskubrimendu berriak egundoko marka ezarri diona) Goethe baitan ikusten du Meinecke-k jeinutsuki sintetizatua: «la gran idea del creador Dios-Naturaleza que enlaza el eterno ser y el eterno devenir, «independiente, vivo, produciéndose con arreglo a ley desde lo más bajo a lo más alto», revelándose en protoformas, tipos e individualidades, poderosamente fecundos, este sentimiento del mundo, nuevo, pero sustentado por todos los siglos, que, al mismo tiempo, implica en sí mismo un nuevo sentimiento de la historia, le suministró el poderoso fundente que había de liberar al mundo histórico de su anquilosamiento»<sup>66</sup>. Jainkoa bidean dago, izatera bidean doa dena berriro, Heraklito Efesokoaren unibertsoan bezala: betegintasun eta armonia guztizko baterantz aurrerabidean orain. Izatea bilakaera da.

## Oharrak

1. Ik. BELAVAL, Y., *Leibniz critique de Descartes*, Paris 1960.
2. LEIBNIZ, G. W., *Escritos filosóficos* (argitaratzailea E. Olaso), Buenos Aires 1982, 57. Uste dut Leibniz estudiantzeko espainolez dagoen testu hoberena hori dela eta, beraz, funtsean bera erabiliko dut hitzaurre honetan erraztasunaren amorez. [Hemendik aurrera EF bezala aipatuko da bilduma hau].
3. EF, 166.
4. Ib., 355.
5. HOLZ, H. H., *Leibniz*, Madrid 1970, 169-176.
6. DAVILLÉ, L., *Leibniz historien. Essai sur l'activité et les méthodes historiques de Leibniz*, Paris 1909. ETTLINGER, M., *Leibniz als Geschichtsphilosoph*, München 1921. OLGATI, F., *Il significato storico di Leibniz*, Milan 1929.
7. «Tu non Philosophorum, sed philosophiae historiam dabis», idatzi zion Leibniz-ek J. Thomasiusi 1669ko apirilean, cfr. LEIBNIZ, G. W., *Die philosophischen Schriften* (arg., C. J. Gerhardt), bol.I, berrarg. Hildesheim 1962, 15. Leibniz-en idazkien argitalpen kritikoa estandarra edo kasi ofiziala berau kontsideratu ohi da. [Hemendik aurrera PhS bezala aipatuko da argitalpen hau]. Testuinguruan Leibniz-ek aurreko historialariak, filosofoen bizitzari buruz, doktrinari buruz baino gehiago idazten dutelako, kritikatzan ditu («vitas potius quam sententias nobis dederunt»).
8. Ik. SPECHT, R., «Rationalismus» antologia, in: BUBNER, R. (arg.), *Geschichte der Philosophie in Text und Darstellung*, bol.V, Stuttgart 1979, 315-326. «Die Gelahrheit ist ein Erkenntnis (n.1)... Die Erkenntnis so aus der heiligen Schrift entsteht wird *Gottes-Gelahrheit*, die aber so aus der menschlichen Vernunft herrührt Welt-Weißheit genennet (n.21)». Kasu «munduko jakinduria» («Welt-Weißheit») kontzeptuari, gero, Kant eta Hegel-en testuetaraino, filosofiaren ohiko izendapena bezala maiz aurkituko baita.
9. «Was ferner die *Welt-Weißheit* betrifft, die über die creaturen raisoniret, so ist unstreitig, daß dieselbige sich nicht allein über gegenwärtige, sondern guten Theils über *entfernete* oder *vergangene* Dinge erstrecke, über welche sie aber solcher gestalt nichts vernünftiges schliessen kan, wenn sie nicht zum wenigsten einige historische Relation praesupponiret. (n.26) Dannenhero sind die *Vernunft-Lehre* und die historie zwey Instrumente, die so wol der *Gottes-Gelahrheit* als *Welt-Weißheit* gemein sind, jedoch mit diesem merklichen Unterscheid. (n.27) Die *Welt-Weißheit* braucht die *Vernunft-Lehre* als den Grund ihrer gantzen Wissenschaft, und praesupponiret nur die aus der Offenbarung herrührende historischen Relationes als postulata und hypotheses, ihre Kunst daran auszuüben, wannenhero auch dieselbe nicht hauptsächlich bekümmert ist, ob die historie aus Göttlicher oder menschlicher Offenbarung entstanden».
10. «Dieweil aber die Schwachheit des menschlichen Verstandes dergestalt beschaffen ist, daß es ohnmöglich ist alle Wahrheiten genau und deutlich zu erkennen, oder derer Wahrheiten, die ein Mensch weiss, gewiß zu seyn (...)», Ib., 325-326. Cfr. TONELLI, G., «Thomasius y su escuela», in: BELAVAL, Y. (arg.), *La filosofía alemana de Leibniz a Hegel*, Historia de la Filosofía (Siglo XXI), bol.VII, Madrid 1978, 102-105.
11. LEIBNIZ, G.W., PhS, bol.III, 7, Huet-i gutuna: «(...) Susceptum est, revocare literas fugientes, revivificare lumen pene moriturae antiquitatis, et optimis auctoribus jam tertiam vitam dare, cum post unius vix seculi decursum

- redeunte contemtu, alio barbariei genere succedente (...) claudere rursus oculos cooperint». Leibniz-ek hemen Descartes eta Bacon izendatuki salatazen ditu basakeria moderno horren kariaz.
12. P.D. Huet honi buruz, *Censura philosophiae cartesianae* baten autorea bera, 1689, ik. GUEROULT, M., *Histoire de l'histoire de la philosophie*, bol.I, Paris 1984, 207-223.
  13. EF, 353-354. Beharbada historiaren estimazioan humanismo ernazentistatik luteranismoa zehar moderniaraino Alemanian egon den soka etengabeak merezi du gogoratzea, razionalista kartesiar frantsesekiko Leibniz-en diferentzia ulertzeko. Reuchlin humanista, Florentziako Ficino eta Pico della Mirandola-rekin adiskidetua, larri-larri ibilia da Inkisizioaren auzi batean nahastua, Maximiliano Kaiserrari idazki judutar ez-bibliko oro (Kabbala, etab.) kiskalarazi nahi zion Pfefferkorn judu konbertituaren zeloaren aurka idazki haiek gorde eta estudiatzearen alde altxatu delako. Nauclerus-en Munduko Historia monumentalari —»Memorabilium omnis aetatis et omnium gentium chronici commentarii», 1516— Reuchlin horrek berak hitzaurrea idatzi dio, historiaren garrantzia giza bizitzarentzat azpimarratuz. Historia honen eta Reuchlin-en aldeko beste izkribu batzuen publikazioan burubelarri enpeinatua ibili da Melanchthon gaztea, gero bera historiako profesorea Wittenberg-eko Unibertsitatean eta beste Munduko Historia arrakastatsu baten autorea izango dena, eta eskola protestanteen antolatzaile gisa horietan historiaren irakaskuntzari ardura berezi-berezia ipiniko dio-na (1518), horri giza bizitzarako uztezina iritiz. (Melanchthon-entzat ere historiaren balioa erakusgarria eta morala da oroz gain. Historian, dio, adibideak aurkitzen ditugu, nola jokatu ikasteko bizitza pribatu nahiz agerikoa, zuzenbidean nahiz politikan: «Ezin burubida daiteke hura gabe ezekin bizitzako paradatan, ez pribatu ez publikotan»). Handik aurrera historia diziplina basikoa izango da hezkuntza eta kultura protestantean.
  14. PhS, bol.III, 270.
  15. EF, 48.
  16. Ib., 289. «Gure filosofo berriotako gehiengoak uste bezain ez egiatik urruti daude eta ez hain barregarriak dira, izan».
  17. Ib., 437. «Asko dira Descartes-engandik apartatzea erabaki dudan puntuak, baina orain azaldu ditudan partikulazki substantzia gorpuztunen printzipioei berei dagozkienak dira eta eskolako filosofia antzinar zentzuzkoena, hori itxuroso interpretatzen bada, errebindikatzeko balio dute» (Ib., 442).
  18. Beste toki batzuetan ere kritikatuak (Ib., 441, adibidez).
  19. Ib., 465.
  20. Ib., 353-354. Aristoteleri «Logikaren aita» (370) eta «matematikatik landa matematikoki idatzi duen lehena» (359) irizten zaio.
  21. Ib., 418. Kontraesanaren eta identitatearen printzipioen berdinketa honi buruz, cfr. COUTURAT, L., *La logique de Leibniz*, berrarg. Hildesheim 1966, 260.
  22. Ib., 428. (Jakob Thomasius-i gutunean, loc. cit., 16, deblauki aitortzen du Leibniz-ek: «Quare dicere non vereor plura me probare in libris Aristotelis *Perí physikês akroáseos*, quam in meditationibus Cartesii; tantum abest ut Cartesianus sim»).
  23. Ib., 566; cfr. NE, 608. Sozinianismoa —izena Lelio, 1525-1562, eta Fausto, 1537-1604, Sozzini-tarrengandik duena—, Erreformaosteko mugimendu bat izan da, bere tankera «razionalistagatik» ohargarria: Hirutasuna absurdutzat jo du, eta jatorrizko bekatua, Jesukristoren jainkotasuna, graziaren ezinbes-

- tekotasuna, etab., doktrina katoliko-protestanteak irrazionaltzat arbuaiatu. Jainkoa Eskritura Santuan mintzo zaigu, baina gizon-emakumeok hura gure arrazoimenaren arabera behar dugu irakurri eta ulertu. Sozinianismoak, komunitate pertsegitutua eta ja xahutua izan zen arren, eragin bortitza izan du Ilustrazioan. Leibniz bestela ekumenistaren sozinianoen aurka kritika gogoren arrazoiak ik. ANDREU RODRIGO, A., «Lessing: quimera y anagnórisis», in: LESSING, G. E., *Escritos filosóficos y teológicos*, Madrid 1982, 61 eta hurr.
24. Ib., 566 [PhS, bol.III, 624-625].
25. Aip. in HEGEL, G. W. F., *Lecciones sobre la historia de la filosofía*, bol.III, México 1977, 342. Ohartarazi beharrekoa da apika, batez ere *Giza adimenari buruzko entseiu berrien* argitalpenaren aurretik 1756an (bitartean Locke hila zenez gero, autoreak ez baitzituen bere egunean argitaratu nahi izan), Leibniz-en pentsamenduaren ezagupena Alemanian bertan fragmentarioa eta partziala zela eta, geroago ere denbora puska batean halatsu jarraitu zuela, bere eskuizkribu ugarien edizioa —oraindik jarraitzen duena— nahikoa aurteratu arte.
26. *Giza adimenari buruzko entseiu berriak*, Bilbo 1996, 70 [Hemendik aurrera EB legez aipatuko da idazki hau].
27. Ik. HOLZ, H. H., op. cit., 176: «Para delinear la figura espiritual de Leibniz resulta importante ver cómo su tarea de historiador corresponde exactamente a la imagen monadológica del mundo: en ella cada individuo es considerado representación individual de la totalidad de las condiciones mundanas y de las conexiones relacionales, y, por tanto, sólo puede estar explicado desde el todo». Halaber MEINECKE, F., *El historicismo y su génesis*, Buenos Aires 1983, 35, nahiz eta honek zentzu kronologikoan, agian sistematikoan ere bai, menpetasun ordena inbertitu nahiago duen, «banakotasunaren bere ideiak eraman zuen bere monaden doktrinara» iritziz, edonola ere monadologiaren eta ikuspide historikoaren arteko lotura estua berdin azpimarratzu berak ere. Ik. orobat BELAVAL, Y., *Leibniz critique de Descartes*, Paris 1960, 112 eta hurr. BOEHLE, R., *Der Begriff des Individuums bei Leibniz*, Meisenheim am Glan 1978. KAULBACH, F., «Leibniz' Begriff der Philosophie», in: K.F., *Systemprinzip und Vielheit der Wissenschaften*, Wiesbaden 1969, 126-144.
28. Nahasmendu intelektual honen deskribapen aproposa iruditzen zait hau, BOUTROUX, E., «La Philosophie de Leibniz», in: LEIBNIZ, *La Monadologie*, Paris 1990, 180: «Il trouve devant lui, développées par le christianisme et par la réflexion moderne, des oppositions tranchées, et des contrariétés, sinon de véritables contradictions, telles que les anciens n'en ont jamais connues. Le général et le particulier, le possible et le réel, le logique et le métaphysique, le mathématique et le physique, le mécanisme et la finalité, la matière et l'esprit, l'expérience et l'innéité, la liaison universelle et la spontanéité, l'enchaînement des causes et la liberté humaine, la providence et le mal, la philosophie et la religion, tous ces contraires, de plus en plus dépouillés par l'analyse de leurs éléments communs, divergent maintenant à tel point qu'il semble impossible de les concilier, et que l'option pour l'un des deux, à l'exclusion complète de l'autre, semble s'imposer à une pensée soucieuse de clarté et de conséquence. - Reprendre, dans ces conditions, la tâche d'Aristote, retrouver l'unité et l'harmonie des choses, que l'esprit humain semble renoncer à saisir, peut-être même à admettre, tel es l'objet que se propose Leibniz».
29. EF, 139-140, 281-284, 325. Ik. LOVEJOY, A. O., *La Gran Cadena del Ser*, Barcelona 1983, 267-293. «Mundu posibleatarik hoberenaren» Voltaire-ren

- isekak, ik. *Opúsculos*, Madrid 1978, 132, 202, 206; *Kandido* (I. Sarasolaren euskal itzulpena), Donostia 1972. Optimismo idiliko bat baino gehiago, soluzio («optimismo») tragiko bat dela, cfr. ECHEVERRIA, J., *Leibniz*, Barcelona 1981, 63 eta, esentzia konposaezinez, 68 eta hurr., 81.
30. Ib., 469.
31. Ib., 480. Ik. orobat Anexo biak, Ib., 481-483, «Si el mundo crece en perfección» eta «El progreso en el infinito». Progreso perfektibo azkengabearen kontzeptuaren korapiloez —linealki, zirkulariki, espiralean, aurrera eta atzerapen hurrenkeran, obalki, betiereko itzuleran, entseia bailiteke irudikaztea hori!— cfr. BELAVAL, Y., op. cit., 114-115. Lessing-en interpretazioan, mundua bere osotasunean ezin da hobetzen aritu (nola hobetu ahal izango litzateke ahalik hoberena?), baina perfekzio partikularren modalitateetan bai, cfr. LESSING, G. E., op. cit., 303.
32. MEINECKE, F., op. cit., 32-47. Herder-en historiaren eta kulturaren filosofia (nazioaren kontzeptua, etab.) Leibniz gabe ulertzetik ez dagoela, edo gaizkiulertzea bakarrik dagoela, cfr. CASSIRER, E., *Freiheit und Form. Studien zur deutschen Geistesgeschichte*, Berlin 1921, 186 eta hurr. J. QUILLIEN, Humboldt-en ikertzaileak, *L'Anthropologie philosophique de G. de Humboldt*, Lille 1991, 410, historiaren fundatzailetzat jotzen du Leibniz, indibiduotasunaren garrantziagatik haren sisteman eta indibiduaren kontzeptua berdintasunean iraupena edo konstantzia bezala denboran bururatzeagatik, gorabehera guztien erdian.
33. Ik. orobat EF, 507 eta hurr., etab., etab.
34. Ib., 287.
35. Ib., 269.
36. «Gauzen elkarrekiko lotura ondo kontsideratzen denean, berebat esan daiteke, Alexanderren ariman betidanik daudela bai gertatu zaion guztiaren arrastoak eta bai gertatuko zaion guztiaren markak, eta baita unibertsoan gertatzen den guztiaren trazak ere, nahiz eta Jainkoaren esku baino ez egon haiei guztiei tankera hartzea».
37. Ib., 384 («Del Destino», *Escritos alemanes sobre la Sabiduría*).
38. Ib., 621.
39. Ib., 269 («Sobre el modo de distinguir los fenómenos reales de los imaginarios»); ik. halaber Ib., 295-297.
40. *Metafisikako Diskurtsoa*, 8. zenb.
41. Ib., 325.
42. Ib., 603 (*Principios de la naturaleza y de la gracia fundados en razón*, n. 13).
43. BELAVAL, Y., op. cit., 113. Leibniz-en printzipioen artean, F. MEINECKE, op. cit., 39, teinka bat sumatzen du, azken finean indibiduotasun beteginaren eta osotasun organiko egituratuaren ideiek kontzientzia historiko garbi-garbia lortu ahal izatea eragotzi ziotelarik berari, hori bere jarraitzaileek erdietsiko baitute.
44. EF, 603-604. Cfr. Ib., 310-311 ere, eta EB 318-331 («Gure ezagutzaren mailak»). CASSIRER, E., *El problema del conocimiento*, bol.II, México 1979, 103 eta hurr.
45. Ib., 546. Cfr. EB, 459-470.
46. «Aritmetikoek egiten dituzten kalkulu errakuntzen kausa berbera da nola-bait errakuntza guztien jatorria» (EF, 424-425).
47. Ik. AUBENQUE, P., *El problema del ser en Aristóteles*, Madrid 1974, 77-78. Autoritate historiko bat (Leibniz bera horien artean!) irakurle «kritikoak»

- hobeto ezagutzea hark bere burua baino, Kant-ek bere filosofiarentzat behin eta berriro bindikatzen eta justifikatzen duen kontua da.
48. BELAVAL, Y., op. cit., 116.
49. POPPI, A., *La dottrina della scienza in G. Zabarella*, Padua 1972, 159-160, 304-305 (Zabarellari buruz). - Orain Machiavelli edo Guicciardini ez aipatzeko, Valla, Poliziano, Varchi-ren historiaren interesaz eta balioaz («la utilidad de la historia, que hemos demostrado que es superior a la de la filosofía» dio Valla-k) ik. GARIN, E., *El Renacimiento italiano*, Barcelona 1986, 133-134, 136. ID., «La historia en el pensamiento renacentista», in: *Medioevo y Renacimiento*, Madrid 1981, 140-152. KELLEY, D. R., «The theory of history», in: SCHMITT, Ch. B.-SKINNER, Q. (arg.), *The Cambridge History of Renaissance Philosophy*, Cambridge 1988, 746-761.
50. EF, 391 («De la verdadera teología mística», *Escritos alemanes sobre la Sabiduría*).
51. Ib., 600. Cfr. orobat EB 427.
52. «En la verdad contingente —idazten du Leibniz-ek *Verdades necesarias y contingentes* estudioto argitsuan, cfr. EF, 329-330— si bien el predicado está en efecto incluido en el sujeto, sin embargo, aunque se continúe indefinidamente el análisis de ambos términos, nunca se llega a la demostración o identidad, y solamente Dios, que de una vez abarca lo infinito, puede ver claramente de qué manera está incluido el uno en el otro y comprender a priori la razón perfecta de la contingencia, suplida en las criaturas por la experiencia a posteriori. Y así las verdades contingentes se relacionan con las necesarias, en cierto modo, como las razones sordas [zenbaki irrazionalak, egungo terminologian], esto es, las de los números inconmensurables, con las razones expresables de los números conmensurables. En efecto, así como puede mostrarse que un número menor está incluido en otro mayor, resolviendo ambos hasta encontrar el máximo factor común, así también las proposiciones esenciales o verdaderas se demuestran conduciendo el análisis hasta alcanzar términos tales que conste por las definiciones que son comunes a ambos términos de la proposición inicial. Por otra parte así como un número mayor contiene en efecto a otro inconmensurable, pero nunca se llega a encontrar el factor común, como quiera que la resolución prosiga hasta el infinito, así también en la verdad contingente nunca alcanzarás la demostración por más que analices las nociones. Hay sólo esta diferencia: en el caso de las razones sordas podemos establecer demostraciones, mostrando que el error es menor que cualquiera que se asigne, pero en el caso de las verdades contingentes ni siquiera esto ha sido concedido a la mente creada. Y, de este modo, creo haber explicado un arcano que largo tiempo me tuvo perplejo, no entendiendo cómo el predicado puede estar incluido en el sujeto sin que la proposición fuera necesaria. Pero el conocimiento de la geometría y el análisis infinitesimal me ha procurado esta luz, permitiéndome comprender que también las nociones son analizables hasta el infinito».
53. Eta berdin «Fisika osoa inoiz ez da zientzia betegin bat izatera helduko», ik. EB 406, etab; horrekin ez da ezagutza enpirikoen (Ib., 397-398), historiko edo fisikoaren, askitasuna ukatzen, indukzioaren balio orokor mugatuaren barruan beti (Ib., 399-400).
54. HOLZ, H. H., op. cit., 171 eta hurr. Ik. EB ere 418-423.
55. Lurraren historia geologiko-natural edo *Protogaea* batekin irekitzen zuen berak Hannover-ko Etxearen ikerketa. «Ciertamente resultaba algo exagerado comenzar una historia particular por Adán y Eva, por así decirlo. Esta

- idea se hallaba fundamentada, sin embargo, en el método histórico-universal del filósofo, que no veía el todo únicamente en la historia política y cultural, sino que quería que se incluyesen también las condiciones naturales del mundo que nos rodea», epaitzen du HOLZ-ek, H.H., op. cit., 175.
56. «Discours touchant la méthode de la certitude et l'art d'inventer», PhS, bol.VII, 180. Zientzien arkitektonika honek «zientziaren arbolaren» ikusmolde tradizionala jasotzen du, Descartes-ekin eta kartesiarrekin esanahi matematizista berria jantzi duena. Ik. honi buruz LEFEBVRE, G., *El nacimiento de la historiografía moderna*, Barcelona 1974, 116: «La ciencia se divide *naturalmente* en un gran número de ramas, pero esas ramas comportan una verdadera unidad, porque todas ellas pueden conducir lo que descubren a la matemática. La física puede expresar sus descubrimientos en fórmulas matemáticas, la química en fenómenos físicos, la materia viva en fenómenos químicos, y así sucesivamente. En consecuencia, la ciencia es *una* y debe remitirse a la matemática; el ideal del hombre es poner el universo en forma de ecuación».
57. EB 422.
58. Ik. EB 411-426, IV. Liburuko XVI. kapitulu osoa. Cfr. orobat PhS, bol.VII, 139 eta hurr.: «Historia enim servit ad pietatem, et ex ea veritas religionis nostrae demonstrari potest»; «Usus Historiae ad agnoscendam providentiam in mutatione Imperiorum et conservatione Ecclesiae», etc.
59. «Puto Deum non tantum in historia sacra et civili aut etiam naturali nobis loqui, sed et intus in Mente nostra». Aip. in BELAVAL, Y., op. cit., 117, 2. oin-oharrean.
60. Ib., 110. MEINECKE, F., op. cit., 40, orobat «la determinación moral-utilitaria del fin del saber histórico» azpimarratzen da Leibniz baitan; eta honek historiaren bestelako jomugarik ere alegatu ohi duela, ametitzen da, «pero en su consciencia dominaba el moralismo utilitario». Ik. halaber LEIBNIZ, G. W., *Escritos de filosofía jurídica y política*, Madrid 1984, 44 eta hurr. («Progreso e historia»), J. de Salas Ortueta-ren Hitzaurrea.
61. EF, 624-625. Leibniz-ek mistika erlijioso —eta partikulazki Eckart Maisuaren mistika— filosofikoki gogoetatu duela, irizten du E. Cassirer-ek, ik. *Philosophie der symbolischen Formen*, bol.II, Darmstadt 1977, 308-309.
62. CASSIRER, E., *Freiheit und Form*, loc. cit., 63.
63. MEINECKE, F., op. cit., 39.
64. «Alemanian Ilustrazioa teologiaren alboan egon zen», idatzi du HEGEL-ek, G.W.F., *Lecciones sobre la filosofía de la historia universal*, Madrid 1982, 685. Ik. SPECHT, R., «Deutsche Aufklärung», in: BUBNER, R.(arg.), op. cit., 313. GOLDMANN, L., *Introduction à la philosophie de Kant*, Paris 1967. KRONER, R., *Von Kant bis Hegel*, Tübingen 1977. LÖWITH, K., *Weltgeschichte und Heilsgeschehen*, Stuttgart 1973. TONELLI, G., «La filosofía alemana desde Leibniz hasta Kant», in: BELAVAL, Y.(arg.), *La filosofía alemana de Leibniz a Hegel*, Historia de la Filosofía (Siglo XXI), bol.VII, Madrid 1978, 99-164. TOPITSCH, E., *Vom Ursprung und Ende der Metaphysik*, Munich 1972.
65. BRAUN, L., *Histoire de l'histoire de la philosophie*, Paris 1973, 214.
66. MEINECKE, F., op. cit., 493.

## **Bibliografía**

AITON, E. J., *Leibniz. Una biografía*, Madrid 1992.

BELAVAL, Y., *Leibniz, critique de Descartes*, Paris 1960.

ECHEVERRIA, J., *Leibniz. El autor y su obra*, Barcelona 1981.

RUSSELL, B., «Exposición crítica de la filosofía de Leibniz», in: *Obras Completas*, bol.II, 159-375.